



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

TOLOSALDEKO GILTZARRIAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA:
NAHI AL DUZU ESTATU BURUJABE BATEKO HERRITARRA IZAN? GALDERAREN
INGURUKOA.

Tolosaldeko Giltzarria taldeak honako mozioa aurkezten dio Ibarra Udaleko Udaltzari honek onar dezan:

MOZIOA:

Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoen enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitze eskubidea aldarrikatetik egikaritzera pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitze eskubidea, emaitzaren ginetik, gizarte kohesioa dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarrak, eskualdeko biztanlearen iritzien babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkari duen heinean, begi onez ikusten du Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugulako eta herritarren garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitzeko ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europar martxan dabilen trena Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean.
Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!